



213

ALEA

arabako aldizkaria

ARIMEN GAUA

**BIZITZA OSPATZEKO,
GAU KOLORETSUA**

Aktibatu UDAL TXARTELA!



**Instalazioen erreserbak
eta izapideak online egiteko,
zozketetan izena emateko...**





ALEA 213

2019-11-01 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

JEREMY LWANGA, UNSPLASH

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Heriotza omentzeko modu ezberdinak.
- 10 **Protagonista.** Jose Antonio Guillen Gracia, Europa Hegoaldeko Populazio Urriko Eremuen Sarearen ordezkaria.
- 14 **Iritzia.** Irati Iciar, 'Bizitza ospatzeko'.
- 15 **Iritzia.** Cira Crespo, 'Estandarra'.
- 16 **Iruditan.** World Press Photo: mundua, iruditan.
- 18 **Ekonomia.** Protestak Gasteizko San Martin auzoko Etengabeko Arreta Gunearen itxieraren kontra.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Marban da Dulantziko Antzerki Amateur Jaialdia.
- 23 **Gizartea.** Azaroaren 15ean eta 16an izango da GasteOK topaketa.
- 24 **Kultura.** Hizkuntza gutxituetako ordezkari indigenak Araban.
- 26 **Gure Bazterrak.** San Adriango tunela, Europarako pasabidea.
- 28 **Denbora-pasak eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Irati Iciar, Ane Pedruzo eta Cira Crespo.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Heriotzaren omenez, gora bizitza!

Ba al dakigu zer dela eta ospatzen ditugun gure egutegiak markatutako jaiak? Bakoitzaren atzean badago ikasi, desikasi eta berrikastekorik. Egunotan Arimen Gaua ospatuko dugu. Mundu mailan Halloween eta Hildakoen Eguna dira erritu honen adierazpen ospetsuenak. Heriotzaren omenaldian sakondu nahi? Testua eta argazkiak: **Ane Pedruzo.**



Egutegi gregoriano garaikideko hainbat jai-egun amalurraren omenezko ospakizunen eta erlijio katolikoaren sinkretismoaren emaitza dira. Antzinako gizarteak udako eta neguko solstizioen errituen bueltan egituratzen ziren, udaberri eta udazkeneko ekinozioei ere adi, lurraren zikloen arabera. Era honetan, elkarren osagarri eta isla diren neguko eta udako jaiak bereiz daitezke.

Gurean neguko festatzat har ditzakegu santuei lotutako San Martin, San Tomas edo San Anton moduko jaiak, baita Gabonak, Agate Deuna, Kandelaria eta inauteriak ere. Oier Araolaza antropologo eta dantzariak ondo azaldu bezala "neguko jaien ezaugarri dira eske errondak, nekazal produktuen azokak, heriotza (gizaki, animalia zein naturarena) eta berpiztearen inguruko erritualak, mozerro eta janzkera bereziak...".

Jatorrizko errituen eraldaketa merkantilizatua

Neguko festen arten lehena bertan dugu: Arimen Gaua edota Gau Beltza, Halloween formatuan gero eta ospatuagoa. Jai gehienen antzera, hau ospatzeko modua ere merkatuaren mesedetan eraldatua izan da. Estatubatuartzat jo bada ere, mundu osora hedatutako Halloween festa kontsumistak Ameriketara emigratutako irlandar komunitatearen tradizioa omen du oinarri. Ortuiek garai honetan ematen dituzten kuiak eta arbiak hustu, aurpegi itxura eman, kandelak barruan sartu eta bide bazterrak argizatzen zituzten irlandarrek, bizilagunak izutu eta hildakoen

Diego Rivera artistak egin zituen munduan ezagun Catrina koloretsuak.



Hildakoen Eguna ospatzeko "zeru koloretsuak" atontzen dituzte herrietan; Toluca-kaleak irudian.

Maria Salud. 106 urteko emakume purepecha du oinarri Pixar ekoiztetxeko 'Coco' filmak.

MEXIKON OSPATUTAKO HILDAKOEN EGUNAK MESOAMERIKAKO INDIGENEN ERRITUALA DU OINARRI

UNESCOK 2003AN IZENDATU ZUEN GIZATERIAREN ONDAREN UKIEZIN ETA AHOZKOA

arime bidea erakusteko xedez. Eta ez ziren bakarrak Europan. Hain zuzen ere, duela ez hainbeste, euskal gaztetxoak ere antzera ibiltzen ziren gure herri askotan, etxean topatutako arropa zaharrekin mozzoratuta.

Ameriketara bueltatuta, Mexikon Halloweenen besteko oihartzuna duen jaia ospatzen dute garai honetan: Hildakoen Eguna. Ospakizun entzutetsu hau sinkretismo baten emaitza da, baita ere, Mesoamerikako indigenen errituala baitu oinarri. Mexiko hego-erdialdeko 40 bat indigena taldek ospatzen dute, baita mestizo askok ere; hildakoak omentzeko eta eurekin elkartzeko unea dute. Mesoamerikako gizartearen mundu-ikuskeraren arabera, heriotzak bizitza elikatu eta bere iraupena bermatzen du: ez dago bata bestea gabe ulertzerik, birsortzea heriotzaren ondotik doa. Unescok 2003an izendatu zuen Gizateriaren Ondare Ukiezin eta Ahozkoa, "Hildakoen omenezko ospakizun indigena" izenburupean.

Jai honen adierazpen kulturala anitza eta aberatsa da oso. Hortxe ditu, esaterako, Catrinak, dotore jantzitako eskeleto maitagarri bezain beldurgarriak. Jose Guadalupe artistak duela 100 urtetik gora sortu zituen. "La Calavera Garbancera" izenarekin bataiatu zituen hasiera batean. Izan ere, garaiko txitxirio-saltzaileei iseka egin nahi zien artelanarekin, europarren tankeran janzten zirelako, aberatsak bailiran. Gizarte kritika egiteko xedez jaiotako artelanak Diego Riveraren eskutik egin ziren ospetsu.

Alebrijeek ere leku nabarmena hartzen dute ospakizunean. Pedro Linaresek amestutako naturaz gaindiko izaki koloretsu hauek hildakoak Mitclan-era (azpimundua) heltzen laguntzen dituzten gida espiritualak omen dira. *Xoloitzcuintle* Mexikoko txakur endemikoa da hauen artean ezagunena.

Cempoalxuchitl loreek zehazten dute hildakoen lurraldetik bizidunenera heltzeko bidea. Hala, urriaren erdialdetik laranja eta hori kolore biziarekin betetzen dira maitasun eta errespetu osoz atondutako hilerrietako panteoi eta etxeetako aldareak.

Jai gehienetan bezala, janaria eta edaria festaren ezinbesteko osagaiak dira. Aldareetan hildakoen argazkiak jartzearekin batera,



euren jaki gustukoenak eskaintzen zaizkie. Tamalak (hildakoen gorputzak biltzeko teknika zaharra gogora ekartzen duen arto hostoan bildutako arto opila) eta atolea (artoa oinarri duen edaria) ez dira falta. Hauei, herri guztietako azoketan eskuragarri dauden hildakoen opil eta alfeñique-ak gehitu zaizkie azken urteetan; azukre bonbak.

Erroak erro, Hildakoen Eguna ez dago merkantilizaziotik at, ezta gutxiago ere. Horren adibide argia da, adibidez, 2016tik hona Mexiko Hirian urtero ospatzen den desfilea. 2015ean James Bond-en *Spectre* filmerako asmatutako hildakoen kalejira errealtate bihurtzeko beharra sentitu zuten agintari mexikarrek, filmaren ondorioz sortutako eskari turistikoari erantzuteko. Pixar ekoiztetxearen *Coco* filmak ere bere eragina izan du, batez ere Michoacanen. Izan ere, filma estatu horretan dagoen Patzcuaro lakuaren inguruko Santa Fe de la Laguna herrian dago oinarrituta. Dagoeneko laku inguruko ospakizunak masifikatuak bazeuden, Pixarrek ez du joera baretzen lagundu.

Hildakoen mintzaira biziak

Tamalez, Hildakoen Eguna munduratu duten ekoiztetxe erraldoi eta bestelako botereek ez dute bertako kultura eta hizkuntza aniztasuna balioan jartzeko aukera aprobe txatu. Nazio Batuen Erakundeak 2019a hizkuntza indigenen urtea izendatu duen honetan, ezin aipatu gabe utzi Mexikoko jatorrizko hizkuntzak. Hizkuntza Indigenen Institutu Nazionalaren (INALI) arabera, 70 hizkuntza talde daude, hiru adar linguistiko handitan banatuta: uto-azteca, maya eta otomangea. Horiez gain, lau familia linguistiko independente daude eta beste lau hizkuntza isolatu: seri, purepecha, Oaxacako chontala eta huavea.

Hain zuzen ere, *Coco* pelikulan nabarmendu ez arren, Santa Fe de la Laguna herri purepecha da, eta bertan bizi da hezur-haragizko *Mama Coco*: Maria Salud. 106 urteko emakume hau purepecha hiztun petoa da, herriko biztanle guztiak bezala. Are gehiago, filmak herriko plazan bistaratzen duen monumentua (Ernesto de la Cruz

Purepecheen eskubideen alde borrokatzeagatik eraildako Elpidio Dominguezen omenezko eskultura.

Herri guztietako azoketan eskuragarri dauden hildakoen opil eta alfeñiqueak.



fikziozko abeslariarena) errealitatean Elpidio Dominguezen omenezkoa da, purepechen eskubideen alde borrokatzeagatik eraildako aktibista.

Purepechaz gain, anitzak dira Hildakoen Egunaren mintzairak. Besteak beste, espainolez hitz egiten dutenek ere nahuatl hizkuntzan izendatzen dituzte erritual honen oinarritzko elementu asko: *Mictlan*, *cempoalxuchitl*, *xoloitzcuintle*... Mexikon gehien hitz egiten den bigarren hizkuntza da nahuatl-a, milioi eta erdi hiztun inguru dituen, eta bere alfabetoa estandarizatu berri duena. Errepublikak Federalaren izena bera nahuatl-a da: *metztli* (ilargia), *xictli* (zilborra edo erdia) eta *co* (tokia adierazteko atzizkia). Alegia, ilargiaren zilborrean ospatzen da Hildakoen Eguna.

Ospakizunak erroetatik arnasteko erronka

Bistan da Arimen Gaua, Gau Beltza, Halloween eta Hildakoen Egunaren jatorrizko zentzua ez dela hain desberdina: heriotzaren eta bizitzaren dualtasuna ohoratzea. Jai bakoitza ospatzen den gizartearen eredu hegemonikoaren arabera garatu da. Heriotzari bizkarra emanez bizi den mendebaldeko gizartean, bada,



Etxean aldareak jartzen dira hildakoen omenez, euren argazki eta gustuko jakiekin batera.

Catrina, dotore jantzitako eskeletoa, Jose Guadalupe artistak sortu zuen duela 100 urte inguru.

heriotza hutsalduz ospatzen da nagusiki.

Zorionez, badira inertzia hegemonikotik aldentu eta jatorrizko sinologiari eta izateko arrazoiari eusten diotenak, baita usadio zaharretik abiatuta ospakizunaren berrasmatzean murgilduta dabilzanak ere, bestelako baloreak lehenetsiz. Euskal Herrian, esaterako, Gau Beltza bertako ikuspegitik antolatzen hasiak dira jada hainbat herritan, Gasteiz, Aramaio, Audio, Mutriku, Eibar, Aretxabaleta, Lekeitio, Oiartzun, Pasaia edo Arrasate kasu, eta datozen urteetan proposamen berriak sortuko direla aurreikus daiteke.

Hildakotik berpizten, gora bizitza! ■■■

Gau Beltza, sari edo ziri



Besteak beste, Gasteiz, Audio, Murgia eta Aramaion antolatu dute Gau Beltza. GAUBELTZA.EUS

Kalabazak hustu eta kandelak piztu. Sari edo ziri. Urriaren 31ren bueltan, Halloween ospatu beharrean, Gau Beltza edo Arimen Gaua ospatzea gero eta hedatuago dago Euskal Herrian. Ohitura zaharrak berreskuratuz, urtez urte, jaia berrasmatzen ari dira, baita Araban ere.

Itzalitako kalabazen berpiztea (Altuna & Ozaita, 2018) lan etnografikoa oinarri hartuta, dagoeneko erritua hauen berreskurapen edo berrasmatzean hasiak diren herrietako esperientziak jaso ditu Euskaltzaleen Topaguneak webgune batean *-gaubeltza.eus-*. "Jaiak euskaratik eta euskaraz antolatu eta bizitzearen garrantziaz jabetuta", abiatu dute proiektua, eta Gau Beltza antolatzeke baliabide kutxa prestatu dute. Hortaz, webgunea "aldi berean tresna eta gonbidapena" dela diote.

Prozesua modu parte-hartzailean antolatzea gomendatzeaz gain, aniztasuna, elkarlana eta zaintza sustatuz, ekintza komun batzuk ere proposatzen dituzte: eske-errondak, mozorro eta makillaje tailerrak, kalabaza tailerrak, gaztainerreak, transmisio saioak, beldurrezko ibilbideak, kultur ekintzak edota beldurrak erretzeko ekintzak, adibidez.

Arabaren kasuan, deialdi eta ekimen ezberdinak izango dira herrialdeko txoko askotan egun hauetan.

Aiaraldeako herri ezberdinetan, urtero bezala, Arimen Gaua ospatuko dute eta, gainera, berrikuntza gisa, kanta bat sortu dute Aiaraldeak eta Kokorikok.

Gasteizko kasuan, Ramon Bajo eskolako lagunek hartu dute antolatzeke ardura. Mozorroak eta faroltxoak

prestatzeko tailerrak antolatu dituzte urriaren 29an eta 30ean. Urriaren 31 izango da egun handia, edo hobe esanda, Gau Beltza. Etxanobe Parkean elkartuko dira 19:00etan, eta eske-errondan arituko dira Alde Zaharreko kaleetatik, "Ziri edo sari!" oihuen artean. 21:00etan, Santo Domingo kalean egingo duten txokolatadak borobilduko du gaua.

Aramaion, urriaren 31n bertan ospatuko dute Gaba Baltza. Mozorro tailerrarekin hasiko dira eta, ondoren, ipuin kontalaria eta kalejira egongo dituzte. Azkenik, "edabe magikoa" eskainiko dute. Beste alde batetik, Zuian Spooky Jaia antolatu dute Bea Murgia Etxean; makillaje beldurgarria egiteko tailerra lehendabizi, eta Halloween Festa izango dute 18:30etik aurrera, musika eta dantzak lagunduta. ■■■

"Populazioaren galera gaixotasun baten sintoma bat da"

JOSE ANTONIO GUILLEN GRACIA EUROPA HEGOALDEKO POPULAZIO URRIKO EREMUEEN SAREA

Despopulazioaren atzean faktore ekonomikoak daude, batik bat; besteak beste, dauden inbertsioak ondo bideratzeko estrategia bat falta dela uste du Jose Antonio Guillen Graciak. Estatu-politikak sustatzeko presio talde bat sortu dute Espainia, Kroazia eta Greziako eragileek eta enpresarien hainbat elkartek.

Testua eta argazkiak: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

Terueletik Kanpezura hurbildu da Jose Antonio Guillen Gracia Europa Hegoaldeko Populazio Urriko Eremuen Sareko ordezkaria. Arabako Kontzejuen Elkartek despopulazioari eta landa garapenari buruz antolatutako jardunaldietan aurkeztu du Guillenek

Eskoziako Lurralde Garaietan arazoari aurre egiteko abiatutako estrategia arrakastatsua. Espainiako estatuan "politika argiak" falta direla nabarmendu du, eta despopulazioaren jatorria "desoreka ekonomikoak" direla.

Zer da Europako Hegoaldeko Populazio Urriko Eremuen sarea? Nola sortu zen?


Soriako, Cuencako eta Terueleko enpresarien elkarteek, herri horietako talde eragileek eta Kroaziako Lika-Senj konderriak eta Greziako Euritania herrialdeak osatu dugu sarea. Europako Hegoaldean, metro koadroko 12,5 biztanle baino gutxiago dituzten lurraldeak gara, eta hori da, hain zuzen, Europako eta Espainiako araudiaren arabera populazio urriko eremuak bezala kontsideratzen dituztenak. 2008an hasi ginen lanean elkarrekin, eta gure asmoa European *lobby* antzeko bat antolatzea izan da.

Zer behar partekatzen dituzue? Zergatik erabaki duzue batzea?

Bildu ginen gure lurraldeetan ematen ari zen galera demografikoa handia zelako. Uste dugu bizitzen ari garen populazio galera gaixotasun handiago baten sintoma bat dela, bizitasun ekonomikoaren, sozialaren eta bestelakoen falta. Gure aukerak oso mugatuak dira, enpresari txikiak gara, oso lurralde txikiak eta ibilbidea hasi genuenean ez genekien oso ondo zer behar genuen, zer eskatu behar genuen.

Nondik hasi zineten?

Politikak aldatu nahi ditugu. Hasieratik ulertu dugu despopulazioaren kontrako borroka edo Espainian dagoen desoreka ekonomikoaren kontrako borroka ez dela hainbeste diru kontu bat, inbertsioen arazo bat baizik, ondo inbertitzeko arazo bat. Kohesio ekonomikorako, despopulazioaren kontra egiteko edo ekintzailatza bultzatzeko funtsak badira, diru asko dago, baina arazoa da ez dagoela estrategia argi bat, ez daudela politika argi batzuk benetan despopulazioaren kontra borrokatzeko. Hasieratik aldarrikatu dugu pentsamolde aldaketa bat behar dela horretan.





Guillen, Arabako Kontzejuen Elkarteko jardunaldietan.

%12

Landatarrak

Euskal Herrian landa eremuan bizi den pertsona kopurua eta bertan nekazaritza eta abeltzaintzan diharduten pertsonen kopurua modu izugarrian murrizten doa etengabe. Euskal Herrian soilik biztanleriaren %12a bizi da landa-eremuan (Europako batez besteko %26arekin alderatuta); lehen sektorea, BPG terminoetan, %1 baino gutxiago da EAEn eta nekazaritza ustiapenen titularren %8,5 soilik dira 35 urtetik beherako pertsonak; azken hiru hamarkadetan baserrien herena galdu da, eta landa eremuko batez besteko errenta maila %30 baxuagoa da.

Eskoziako Highlands and Islands Enterprise (HIE) lurralde garapenerako agentziaren eredua oso presente izan duzue. Zertan oinarritzen da bertako eredua?

Eskoziak ikusi dugu planteamendu desberdinak dituztela, eta oso emaitza onak lortu dituztela. Batetik, estrategia finko bat dute, ez da lau urtetik behin aldatzen, gobernuaren aldaketarekin batera. Han ere populazioaren galera aspalditik dator. 50 urte zeramatzaten biztanleak galtzen, hortaz arazoa estrukturala da, eta, beraz, oinarritzko neurriak hartu behar ziren, egiturazkoak. Bestetik, abian jarritako neurri guztiek helburu berdina izan dute: lurralde horren eredu ekonomikoa aldatzea. Haiek diote: "Ezin dugu izan XXI. mendeko ekonomia bat XIX. mendekoa dirudiena". Eta horri aurre egiteko neurriak hartu dituzte; adibidez, lurraldearen digitalizazioa, ez horrenbeste pertsonen digitalizazioa baizik eta lurraldearena. Bitxia da, baina estatistiken arabera Espainia da internetera sarbide hoberenetarikoa duen Europako herrialdea, baldin eta biztanleak kontuan hartzen badira, ez lurraldea. Populazioaren %95a konektatuta daukagu eta gainerako %5a ez, eta horiek beti dira berdinak.

Zer ildo dira oinarritzkoak eskoziarren estrategian?

Kalitatezko etxebizitza arrazoizko prezioan, digitalizazioa eta lana. Ekonomia dibertsifikatu egin behar da, landa garapenak eta nekazaritza-garapenak ezin dute sinonimoak izaten jarraitu, nekazaritzak garatzeko eta balio erantsia emateko tarte mugatua du. Bestelako ekonomia behar da, teknologia berrietan oinarritua eta populazio berria erakartzeko gai dena, bestelako jarduerak sustatzen dituen ekonomia, prestakuntzan oinarritua, gazteak erakartzeko alternatibak eskaintzen dituen.

Zeinek kudeatu behar du prozesu hori?

Eskoziak agentzia bat sortu dute, autonomia. Egiten duen oso gauza interesgarria da Eskoziako eta Britainia Handiko legebiltzarrek onartzen dituzten lege guztien jarraipena; eta landa eremuari eta lurraldearen antolakuntzari eragiten dioten neurriak baldin badaude, alderdiak interpelatzen dituzte. Oso ospe handia dute, eta iritzia eskatzen diete hainbat gairen inguruan.

Espainiako Estatuan horrelako eredu bat erabil daiteke?

Ez. Duela bi urte egon ginen bertan, eta saiatu gara ikasitakoa zabaltzen. Asmoa litzateke administrazioek ezartzea, arrakasta handia lortu

duen eredua delako. Eskoziako Lurralde Garaiek populazioaren %22 irabazi dute agentzia martxan jarri zenetik. Espainian, berriz, kontrakoa gertatu da; Teruelen, esate baterako, populazioaren %36 galdu dugu denbora epe horretan.

Hain larria al da arazoa?

Bai. Baietz uste dut. Egia da hedabideek, sarritan, gauzak testuingurutik kanpo atera dituztela: "Hegoaldeko Laponia" bezalako titularrak eman dituzte, eta gure kasuarekin zerikusirik ez duten errealitateak aipatu dituzte, Eskandinavia ez baita inoiz gizatiartua egon, lurralde naturala da eta inoiz ez du izan orain duen populazioa baino gehiago. Gure kasuan, landa eremuan, gizakia beti egon da presente, eta orain faktore hori desagertzen ari da. Zein da lurraldearen %50 edo %60 horren etorkizuna gizakia bertatik desagertzen bada? Zer gertatuko da gure lurraldearekin? Zer gertatuko da hirietan? Zer jango dute? Zer edango dute? Energia landa eremuan sortzen da, nik ez ditut eguzki plakak ikusten Madrilen. Landa eremua hustea txarra da herrialdearentzat.

Lurralde oreka ere justizia kontua da?

Argi eta garbi. Zuk ezin diozu ezarri biztanleen zati bati gainerakoek dituzten obligazio berdinak eta aldi berean eskubiderik gabe edo eskubide gutxiagorekin utzi. Landa eremuan garatzeko aukerak ere behar dira.

Egoera iraultzeko zer urrats egin behar dira lehendabizi?

Itxaropena dugu PPko aurreko gobernuak hasi zuen eta oraingo PSOeko gobernuak jarraitu duen despopulazioaren kontrako estrategian.

Lehenbiziko aldiz arazoa aitortu dutelako, eta neurriak hartuko dituztelako. Euskal Autonomia Erkidegoak garapen maila oso altua du, baina baditu ere jendez hustutako lurraldeak, eta, horrenbestez, arazoari ere aurre egin beharko dio. Arazoa guztiona da, Aragoi edo Gaztelan gertatzen ari dena hemen errepika daiteke.

Eta zer egiteko dute horretan landa eremuko biztanleek?

Landa eremuko biztanleok jakin behar dugu gauzak aldatzeko eragileak gu garela. Politikoei, administrazioei haien partea egin behar dute, baina guk bultzatzen ez badugu eta landa eremuari buruz dugun mezua aldatzen ez badugu, ez goaz inora. Baserriko harrotasuna berreskuratu behar dugu. Ziur naiz hemendik hogeita bost edo berrogeita hamar urtera, ez dakit noiz, herri bat ez duenak bilatuko duela.

Zer erronka dituzue esku artean?

Hainbat txosten landu ditugu, ildo desberdinetan. Fiskalitatearen ingurukoa da azkena. Horretan planteatzen da pertsonak eta enpresak landa eremuetara erakartzeko pizgarriak sortzen ez badira oso zaila dela egoera demografikoari buelta ematea. Gainera, neurri legala litzateke eta uste den baino merkeagoa litzateke. Halaber, hurrengo urtean, despopulazioaren eragin ekologikoari buruzko txosten bat aurkeztuko dugu Europan, despopulazioan inbertitzea aldateta klimatikoaren kontrako borrokan inbertitzea dela adierazteko. Bruselan ere partida bat lortu nahi dugu, Europako iparraldean despopulazioaren kontra inbertitzen den partida ere Europako hegoaldean ezartzeko. ■■■



hogeita
hama
urte

ika

Gasteiz euskalduntzen

gasteiz.ikaeuskaltegiak.eus

GASTEIZ
Errege-erregina
Katolikoak 15 C
945 288 922

ZALDIARAN
Zaldiaran pl. 15-16
945 244 905

ARATZ
Adriano VI.a 18
945 154 341

euskara
errazago
egiten



ika

Bizitza ospatzeko



IRATI ICIAR

UEU-KO LANGILEA

Santu Guztien eguna, Domu Santu eguna eta Hilan edo Arimen eguna gertu dauzkagun egun seinatuak dira, gutako bakoitzarentzat esanahi eta praktika ezberdinak dakartzatenak. Baina badaukagu fenomeno indartsuago bat aurretik: Halloween famatua.

Halloween jaiak indar handia hartu du azken urteotan, AEBetako kulturaren mundializazioari esker erraz barneratzeko moduan jasotzen baititugu praktika eta ohiturak horiek, guztiak ere jai-giro eta festa formatuan datoz gainera, erabat eta guztiz zentzua galduta.

Aldi berean, Halloween inbasioari erreakzio gisa-edo, Gau Beltza edo Arimen Gauaren fenomeno zabaltzen hasi da gure inguruan. Hara non kuiak hustu, mozorrotu eta etxez-etxe eskean joateko ohitura bageneukan Euskal Herrian. Gau Beltzaren inguruko ohitura horietako asko aspaldi ahaztuak izan badira ere, berrezagutu, berreskuratu eta berreraikitze egitasmo politikak egiten ari dira hainbat herritan.

Halaber, zalantza daukat, jatorri paganoa, homologazio kristaua edota banalizazio kapitalista duten jai hauek benetan laguntzen ote diguten gure hilkortasuna jasangarriago egiten. Heriotzari bizkarra emandako gizartean bizi gara, gaztetasuna eta edertasuna hauspotzen dituen, eta horrek ez digu batere laguntzen hain "naturala" den - geure edo ingurukoen- heriotzari aurre egin behar diogunean.

Ez nazazue gaizki ulertu, ez nabil kexaka, zuekin gogoetatxo bat konpartitu nahi nuen, besterik ez. Azken finean, bizirik gaudelako hiltzen gara, beraz heriotzaren inguruko ospakizun hauek bizirik gaudela ere ospatzeko aprobetxatzea proposatu nahi dizuet, ez baitakigu noiz arte hala izango den... ■■■

**HERIOTZARI BIZKARRA
EMANDAKO GIZARTEAN
BIZI GARA,
GAZTETASUNA
HAUSPOTZEN DUENA**

Estandarra



CIRA CRESPO
HISTORIALARIA

Estandarra, neutralitatea edo hegemonia oso hitz potoloak dira. Gaur egun asko erabiltzen dira. Nire ustez, hitz hauen erabilera aipatzean molde inposaketa bati buruz ari gara, besteak beste. Estandarraren moldeak lerro zorrotzak eta argiak dauzka, jende gehienarentzat deserosoak. Modernitatearen garaian hasi zen eraikitzen.

Ezusteko lekuetan egiten dugu topo beraiekin, gure intimitatearen barru-barruan, gure etxeetan. Adibidez, orain dela mende batzuk Frantziako hiriburuetan iraultza burges txiki bat hasi zen: jauregietako sukaldeetan janaria berrasmatu zuten. Oturuntza eszenaratzea edo, beste modu batean esanda, aberastasuna eszenaratzea. Hala, XVI. mendean oturuntzak korapilatu eta platerak eta mahai-tresneria ezberdina ateratzen hasi ziren. Baina garrantzitsuena eta benetako ezberdintasuna banakako "zerbitzuaren" kontzepzioa izan zen. Otordua kontzepzio kolektibotik indibidualera pasatu zen. Ez zen arraroa, gizarte guztian banakotasuna indartu baitzen garai hartan, gaur egun arte.

Bitartean, etxe umiletako jendeak mende batzuetan zehar lapiko berdinetik jaten jarraitu zuen. Estandarraren inposaketa ailegatu arte. Noiz izan da hori? Bada, leku guztietan momentu ezberdinetan. Batzuetan XVII. mendean, beste batzuetan XIX. mendean...eta batzuk atzo bertan. Kontua da, gaur egun Mendebaldeko etxe guztietan plater bi edo hiru erabiltzen ditugula otordu guztietan, bakoitza bere tresnarekin. Ez hori bakarrik, ondo jateko ez dago nahikoa plater batekin, lehenengoa, bigarrena eta, noski, postreak behar ditugulako. Horrek lan handiagoa ekartzen digu, gure baliabide apalekin ohitura burges batera moldatu behar dugu eta. Ez gara konturatzen ohitura hauek etxe handietarako daudela pentsatuta... edo, hobeto esanda, morroiak dauzkaten etxeetarako. Eta guk gure bi edo lau besoekin iritsi behar dugu estandarrera, orrazkera desegin gabe.

Eta horrela gertatzen zaigu gauza askorekin, gaur egungo etxeak XIX. mendeko hirietako burgesiaren moldeak dutelako oinarri; bere janari korapilatsuekin, bere familia txiki eta nuklearrekin eta bere txoko guztiak ondo txukun eta garbi-garbi eduki beharrekin, eszenatokira igotzeko prest. ■■■

**ESTANDARRAREN
MOLDEAK LERRO
ZORROTZ ETA ARGIAK
DITU, GEHIENONTZAT
DESEROSOAK**



World Press Photo 2019; mundua, iruditan

John Moore argazkilariaren begirada zorrotzak irabazi du aurtengo World Press Photo fotokazetaritza saria. Haren kamera negarrez ari den neskati bati begira dago, AEBetako mugan; Poliziak ama atxilotzen duen bitartean, Honduraseko Yanel Sanchez du jomuga kamerak. Ohi den moduan, munduko bazter ezberdinetako beste irudi asko ere jasotzen ditu kazetaritza argazki garrantzitsuenen erakusketak; besteak beste, legez kanpoko ehiza ekiditeko Zinbawen emakumez bakarrik osatutako *Akashinga* zaintza taldeko kide bat ageri da entrenamenduan, Txad herrialdeko haur umezurtz bat Bol hirian margotutako horma baten aurrean paseoan edo bere seigarren haurdunaldia bizi duen Yorladis FARC-eko gerrilari ohia bere etxean. Azaroaren 17ra arte izango da argazki erakusketa, Montehermoso kulturuneko ur biltegian. ■



Argazkiak:

Ezkerrean:

- John Moore, Getty Images
- Eskuinean, goitik behera
- Brent Stirton, Getty Images
- Marco Gualazzini, Contrasto
- Catalina Martin, Chico_Panos



San Martingo Etengabeko Arreta Gunearen itxieraren aurka ostiralean egindako elkarretaratzea. @ESKSINDIKATUA

Itxieraren kontra, elkarretaratzea

Gasteizko San Martingo Etengabeko Arreta Gunearen behin betiko itxiera salatu dute sindikatuak, eta egoerari buelta emateko "beharrezkoak diren ekimenak" antolatuko dituztela iragarri dute.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Araban Osakidetzan ordezkaritza duten sindikatu guztiek elkarretaratzea egin zuten pasa den ostiralean, Gasteizko Olagibeleko anbulatorioaren aurrean, San Martingo Etengabeko Arreta Gunearen (EAG-PAC) behin betiko itxiera salatzeko. Itxiera hori "arretaren eta langileen kontrako ezkutuko murrizketa" bat dela sa-

latu zuten sindikatuak, eta hortaz, EAGaren berehalako irekiera exijitu zuten, langile kopuru berdina mantenduz.

Udan behin-behinean itxi zituzten ateak San Martingo EAGak; bertako langileei esandakoaren arabera, uztailaren 1ean itxi eta urriaren 5ean hasi behar ziren berriro ere lanean bertan, baina hori beharrean, itxiera behin betiko

bihurtzea erabaki zuen Osakidetza; San Martin eta Olagibeleko bi guneen "bateratzeaz" eta "berantolaketaz" hitz egin zuen lehenengoaren itxiera arrazoitza orduan. Haren esanetan, oraingo eredia "malgua" izanik, asistentzia-kalitatea eta langileen asetzeta hobetzen ditu.

Uztailean, Osakidetza zuzen-dari nagusi Juan Diegok Etengabeko Arreta Guneen funtzionamendu egokia txalotu zuen, eta jakinarazi zuen 2018. urtean horietan hartutako larrialdi kopuruak lehenengoz gaingitu zuela ospitale-zerbitzuetakoa.

"Egoera kaotikoak" neguan

Sindikatuak gogor kritikatu dute Osakidetza erabakia. Ostiraleko elkarretaratzean salatu zuten Olagibeleko anbulatorioa edo Txagorritxuko larrialdi zerbitzuetara jo beharko duten "auzokideen osasun arreta kaltetuko" duela,

eta, horrekin lotuta, ohartarazi zuten "egoera kaotikoak" sortu daitezkeela, "bereziki neguaren eta gripearen etorrerarekin".

Ohartarazi zuten "profesional falta" dagoela eta "ez dela kasuala". "Osakidetza denbora luzez egon da oinarritzko arreta publikoa estrategikoki kaltetzen, osasun zerbitzu pribatuaren onurarako", salatu dute, eta egoera honen aurrean, iragarri dute "beharrezkoak diren ekimenak" antolatuko dituztela. Aurreikusitako ekintzen artean, zuzenean kaltetutako kolektiboak batzen dituzten herri-tarren elkarte ezberdinekin harremanetan jarriko direla azaldu zuten sindikatuek.

Protesta gehiago

Azken aldian, San Martingo EA-Garen itxieratik harago doaz arazoak Osakidetzan. Izan ere, hila-beteotan, garbiketa eta mantentze-lanen pribatizazioaren aurka mobilizatu dira langileak. Oste-gunean, adibidez, beste elkarre-taratze bat egin zuten Txagorritxu eta Santiago ospitaleen aurrean.

Ekainean, Osakidetzako man-tenu eta zerbitzuetako langileek plataforma bat eratu zuten Txagorritxuko eraikin berrian sortuko diren haien esparruetako lanpos-tuak publikoak izan daitezen es-katzeko; "konpromiso argia" exi-jitzen diote mantenu eta zerbi-tzuetako –garbiketa, sukaldea, garbitegia– Arabako Osasun sai-leko zuzendaritzari. Izan ere, kez-katuta daude pribatizatze urra-tsak ez ote diren egiten ari.

Hilabete horretan zuzendaritza-rekin bildu ziren langileak eta, sindikatuen arabera, bete ez di-tuzten puntu batzuk hitzeman zituen zuzendaritzak. Hortaz, urriaren hasieran "borrokan ja-rraitzeko" asmoa azaldu zuten langileek.



Osakidetzako garbiketa eta mantentze-lanak "publiko izateko" eskatzen dute. ALEA

impresion
arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

ESANAK



NATI LOPEZ DE MUNAIN
ALDUNDIKO INGURUGIRO ZUZENDARIA
Iturria: Basque Eskola

"Tokiko politikan emakumeon lana eta esperientziak partekatu behar ditugu"



ELENA MORENO
EAEKO INGURUGIRO SAILBURUORDEA
Iturria: Radio Vitoria

"Gardelegiko zaborteziaren bizitza baliagarria luzatzeko lanean ari gara"



GORKA URTARAN
GASTEIZKO ALKATEA
Iturria: Oihaneder

"Euskara da gure kulturaren ezaugarriarik nagusia. Maite dezagun ezagutuz eta erabiliz"

ZENBAKITAN

Lanpostuak

Gasteizko Udalak A1 eta A2 taldeetarako lan eskaintza handitzea erabaki du; erdi eta goi mailako teknikarien lanpostuak dira. Hasiera batean, 132 lanpostu eskaini zituzten, eta orain beste 42 gehitu zaizkie; beraz, guztira 174 lanpostu barne hartuko ditu deialdiak. Bi arrazoi direla medio handitu ahal izan dute deialdia: alde batetik, udal plantillan sortu diren lanpostu hutsak, prozesua 2017. urtearen bukaeran hasi zenetik izan diren erretiroen ondorioz; beste alde batetik, aldi baterako kontratu-programak sendotzeko prozesua, horiek egiturazkoak bihurtu baitira.

174

111

Habiak

Liztor asiaticoen 111 habi kendu dituzte irailera arte Araban Diputazioaren langileek. Aiaraldean 76 kendu dituzte, 7 Añanan, Gorbeialdean 15, Mendialdean 2, Lautadan 7 eta Gasteizen 3. Guztira, 784 tranpa jarri dituzte herrialde osoan, eta horietako 177 herriguneetan. 2012. urtean atzeman zuten, lehenbizikoz, liztor asiaticoa herrialdean, eta ordutik, gero eta zabalduagoa dago. Dena den, aurtan, habi gutxiago kendu dituzte.

56

Langabetuak

Laudioko eta Gasteizko enplegu anezkak martxan jarri dituzte. Hainbat adinetako, prestakuntza mailatako eta lan ibilbidetako 56 langabetu trebatuko dituzte horietan. Koordinatzaile batek gidatuko du talde bakoitza, eta parte-hartzaileen eskuetan jarriko ditu gaitasunak hobetzeko, lan merkatua aztertzeko eta enpresekin harremanetan jartzeko tresnak. Aldundia eta Santa Maria la Real fundazioa elkarlanean arituko dira aurtan ere.

Galarretako Azkarrak eramandu munduko gazta onenaren saria

Hainbat herrialdetako 3.800 gazta lehiatu dira *World Cheese Awards* txapelketako 32. edizioan, Bergamon (Italia). Idiazabal Jatorri Izendapeneko eta Artzai Gazta Elkarteko gaztandegiek 63 domina eskuratu dituzte. Galarretako Azkarraga gaztandegia-rena Munduko gazta keturik onena izendatu dute, eta *Super Gold* kalifikazioa eman diote.



Galarretako Azkarra gaztandegiko Gorka Asurmendi. UAGA

Lau hilabeteko epean berrituko dute Ospitale plaza, Gasteizen

Gasteizko Udalak Ospitale plaza –Guardien plaza izenez ere ezaguna– eraldatuko du, irisgarriagoa eta modernoagoa izan dadin. Gobernu Batzarrek Balgorza enpresari esleitu dio kontratua, 362.034,58 euroan. Lanak gauzatzeko epea lau hilabetekoa da. Plaza berriak 90º-ko plaza zirkularra osatuko du, eta kurba horren erdia Frantzia kalearen mailan egongo da.

Gasteiz eta Gaubea artean ibiliko da Espainiako Vuelta

Arabak Espainiako Vueltaren etapa bat hartuko du, hain zuzen, Gasteizen hasi eta helmuga Gaubean izango duena. Vueltaren bigarren astean egingo da etapa hau, baina oraindik zehazteke dago data. Espainiako Vueltaren 75. edizioa 2020ko abuztuaren 14an abiatuko da Utrechtetik (Herbehereak). Abenduan aurkeztuko dute ibilbidea.

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea

LEARNING FROM REALITY

INGENIARITZA GOIERRI AZAROAK 28 OSTEGUNA 17:30 ARRASATE AZAROAK 30 LARUNBATA 10:30 ORONA IDEO ABENDUAK 14 LARUNBATA 10:30 BILBO URTARRILAK 15 ASTEAZKENA 18:00 HIRIETAN AURKEZPENAK: BILBO AZAROAK 7 18:00 Bilbao Berrikuntza Faktoria GASTEIZ AZAROAK 12 18:00 Europa Jauregia DONOSTIA ABENDUAK 11 18:00 Kursaal Jauregia EKINTZAILTZA BILBO AZAROAK 14 OSTEGUNA 18:00 BIDASOA AZAROAK 23 LARUNBATA 11:00 OÑATI AZAROAK 30 LARUNBATA 11:00	ENPRESA KUDEAKETA BILBO AZAROAK 16 LARUNBATA 11:00 BIDASOA AZAROAK 23 LARUNBATA 11:00 OÑATI AZAROAK 30 LARUNBATA 11:00 HEZKUNTZA BILBO AZAROAK 7 OSTEGUNA 18:00 ESKORIATZA AZAROAK 9 LARUNBATA 11:00 KOMUNIKAZIOA BILBO AZAROAK 7 OSTEGUNA 18:00 ARETXABALETA AZAROAK 9 LARUNBATA 11:00 HUMANITATEAK BILBO AZAROAK 7 OSTEGUNA 18:00 GASTRONOMIA — Basque Culinary Center DONOSTIA ABENDUAK 14 LARUNBATA 10:30
--	---

Etorriko zarela jakinarazil
www.mondragon.edu/prest

Zu ez zaren norbaiten azalean

Dulantziko Antzerki Amateur Jaialdiaren XIII. edizioa abiatuko dute ostiralean, zaletuez osatutako bederatzitaideren lanak eskainiz eta umorea eta tonu serioagoa tartekatuz. Amaiera jaia hilaren 23an egingo dute.

JUANMA GALLEGO DULANTZI

Udalerriko hitzordu kulturalik garrantzitsuenean murgiltzear dago Dulantzi: ostiralean hasita eta hilaren 23ra arte, Dulantziko Antzerki Amateur Jaialdiaren XIII. edizioa egingo dute. Aurten bederatzitaideren parte hartuko dute: horietatik hiru Euskal Herrikoak izango dira; tartean Gasteizko Ipazapi elkarteak *Electra vs. Medea* antzenlanarekin.

Gasteiztarren lana ez da kutsu klasikoa izango duen bakarra: *Kristo aurreko 0. urtera* ere joango dira Allegro taldekoak, Monty Phytonen estiloko antzezpena egiteko. Hemen ere erromatarak eta judutarrak ageri dira, eta baita Maria, Jose, Jesus edota Herodes bezalako izen ezagunak... dena umorez hornituta, baina "errespetu handiz" jorratuta, antolatzaileen esanetan.

Aro Klasikotik Barroko aldera salto eginda, XVII. mendeko Pierre Corneilleren komedia bat ere antzeztuko dute, Kumen taldearen eskutik. Allegro taldearena ez da izango erlijioaren aitzakiaz umorea



lazko edizioaren aurkezpena. DULANTZI

lantzen duen lan bakarra: Begoñako eta Arantzazuko amabirjinak ere azalduko dira oholtzaren gainean, Unbe Ganan beste *amatxu* baten konpetentzia sortu zaielako. Dena dela, amabirjinek egiaztatuko dute garaiak aldatu direla eta jendea dagoeneko ez dela hain erraz harritzen.

Umoreaz gain, bizitzari buruzko hausnarketa serioagoek ere izango dute

tartea Dulantzin. Hala, Venezuelen jaioakoa den baina guraso italiarrak dituen Huanitaren istorioa ezagutzeko aukera izango da.

Bizipoza

Ohiko beste gai bati helduta, familia barruko sekretuak ekarriko ditu lehen lerrora La Luciernaga taldeak, egiari eta gezurrari buruzko komedia batean: aurreratu daiteke Socorro izeneko yoga irakaslea eta mediuma ere tartean dagoela.

Bestetik, heriotza aurrean izanda ere bizirik egotea zein garrantzitsua den gogoratuko dute Teatro Estudio San Sabastian taldekoek; eta lau "sasi-musikarien" gorabeherak ere izango dute lekua, beste antzezlan batean. Azkenik, umeentzako ipuin klasiko bat egongo da, gnomo, iratxo, eta sorginekin. Programa osoa ikusteko teatroamateur.com webgunera jotzea da errazena. Azaroaren 23an egingo dute jaialdiaren amaiera ekitaldia, Izaskun Isasiren eta Josune Velez de Mendizabalen laguntzarekin. ■

artepan

Gazte sortzaileen topaketa

Gasteizko Udaleko Gazteria zerbitzuak sustatu du Gazte OK topaketa, 16 eta 32 urte bitarteko gazteen kultura ekimen berriak bultzatzeko; emakumeek egindako lanei arreta berezia eskainiko zaie.

ERREDAKZIOA

Kultur kezkak izan eta proiektu berriei ekiteko gogoia duten 16 eta 32 urte bitarteko gazteek parte har dezakete Gasteizko Udaleko Gazteria zerbitzuak abian jarritako Gazte OK egitasmo berrian. Gazte sortzaileentzako ekimen berriak, gainera, arreta berezia eskainiko die emakumeek egindako sortze-lanei. Tartean izango dira Oitia Ortiz de Lazkano artista, Sara Berasaluze argazkilaria, Maiela Zurutuza diseinatzailea eta Ania Buruaga ilustratzailea ere.

Azaroaren 15ean eta 16an egingo dute topaketa IDarten, garai batean Betoñuko komentua izandakoan, eta Bibat museoan. Almudena Maeso eta Aaron Fernandez de Arroiabe dira ekitaldiaren koordinatzaileak. "Zer egiten dugu Gasteizen sorkuntzaren alorrean mugitzen garen gazteok? Zertan ari gara lanean? Zeintzuk dira gure proiektuak? Zein sinergia sortu daiteke?".

Idea zurrnibilotik abiatu zen aliantzak josi eta ikasteko aukera xede duen ekimena. "Ametsak lortzen laguntzeko" tresnak mahaigaineratu nahi dituzte, eta arte mota guztiak sustatu nahi dituzte, Gazteria zinegotzi arduradun Miren Fernandez de Landak azaldu duen bezala.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, Gasteizko Udalaren



Azaroaren 15ean eta 16an izango da GazteOK topaketa. GAZTEOK

IV. Gazte Planaren barruan aurreikusitako GazteOK topaketak ekarpena egin nahi dio oraingo kulturaren testuinguruari, "arte eta kultur aktibismoa abiapuntutzat hartuta", eta pertsonen ahalduntzea lortu nahi dute.

Era guztietako lantegiak

Batetik, lantegi praktikoak antolatu dituzte, ekonomia (fakturazioa, BEZa, PFEZ), online eta offline komunikazioa, eta ideia artistikoen kontzeptualizazioa

lantzeko. Eta beste jarduera batzuk ere izango dira: dokumental baten proiektzioa, kontzertuak eta performance bat, besteak beste.

Gainera, Alde Zaharretik kanpoko hiriko beste leku batzuetara eraman nahi izan dute ekimena: Espazioa, Pilarren; Orbain, Koroatze auzoan; ARTgia, Judimendin; Arkaiate Kultur Espazioa, Salburuan; eta IDarte, Betoñuko garai bateko komentua izan dira aukeratutakoak. ■

Hizkuntza gutxituak, mintzo

Garabide Elkartek antolatutako 'Hizkuntza Gidaritzari Buruzko Ikastaldia'-ren baitan, munduko hamar hizkuntza gutxitutako ordezkari indigenek hilabete igaro dute Euskal Herrian. Araban ere izan dira.

ERREDAKZIOA

Nazio Batuen Erakundeak Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea izendatu duen honetan Garabide Elkartek bere ekimenak ugaritu ditu, eta, bereziki, formazio proiektuak indartu ditu. Horien artean, urrian martxan izan da *Hizkuntza Gidaritzari Buruzko Ikastaldia*.

Hilabetez, Euskal Herrian izan diren 16 partaide indigena hauek euren herrietan gidaritza perfila dute –kargu instituzionalak, politikariak...– eta 180 orduko formazio intentsiboa jaso dute hizkuntzak biziberritzeko gidaritzan.

Guztira, hamar hizkuntza gutxiagotutako hamasei kide izan dira Garabidearekin elkarlanean: Kitxua (Ekuador), Nasa (Kolonbia), Kaqchikel (Guatemala), Nawat (Mexiko), Yukatango Maia (Mexiko), Amazigh (Rif, Maroko), Maputxe (Txile), Aimara (Bolivia), Guaranía (Bolivia) eta Kiche (Guatemala).

Hiru alorretan lanean

Ikastaldia hizkuntzen biziberritze estrategietan zentratuta egon da eta hiru alor barnebiltzen ditu: batetik, atal teorikoan, euskalgintzako eta instituzioetako hamasei aditu izan dituzte irakasle, hizkuntzaren alde nola egin



Urriaren 15ean Aiaraldea Ekintzen Faktoria ezagutu zuen. GARABIDE

daitekeen azaltzeko, alorrez-alor: hedabideak, hezkuntza, lan alorra...

Bestetik, alde praktikoan, hemeretzi irteera didaktikorekin osatu dute programa, euskararen biziberritzerako ekimenak nola sortu ziren ezagutzeko eta euskararen biziberritzean jokatzaren duten paperaz jabetzeko: ikastolak, euskara elkartek, euskara planak, tokiko komunikabideak...

Eta, hirugarrenik, Garabide elkartek azaldu duen bezala, Ikastaldiak "Euskal Herria bustitzea" du xede eta, horretarako, hamar sentsibilizazio ekintza antolatu dira, euskal jendartearen eta munduko hizkuntza

gutxituetako ordezkarien artean "ukitze puntuak bilatu eta gizarte aktibazioan" eragiteko.

Arabán barrena

Garabide elkartearen arabera, "Euskal Herrian ezin da ukatu euskararen biziberritzeari dagokionez Arabak duen garrantzia". Horregatik, Ikastaldiaren hiru alorretan presentzia nabarmena izan du herrialdeak. Adibidez, alde teorikoan, Garabideko lehendakari Iñaki Martínez de Luna aritu da irakasle moduan.

Irteera didaktikoei dagokionez, urriaren 15ean Aiaraldea Ekintzen Faktoria ezagutu zuen taldeak. Gartzen Garaioak azaldu zien moduan, "eskualdean eraldaketa soziala

euskaratik eta euskaraz bultzatzeko tresna" gisa sortu den proiektua da Ekintzen Faktoria. Horrekin batera, Laudioko Udalean ere harrera egin zieten. Bazkalondoan, Gasteizen Oihaneder Euskararen Etxea nola sortu eta garatu zen ikastearekin batera, hirian euskara sustatzeko ekintzen berri eman zien Iñaki Lazkanok.

Sentsibilizazio ekintzei begira, urriaren 14an, EHUKo Letren Fakultatean 150 ikaslerekin solasaldi emankorrean aritu ziren Mexikoko Yukatango maia hizkuntzaren bi ordezkari, Oscar Chan eta Socorro Cauich. Azken honi Yuuyum irratan egiten duen lanaz galdetu ziotenean xamur bezain irmo erantzun zuen: "Gure hizkuntzan komunikatzea duintasun eta askapen ariketa minimoa da, gure hedabideek ezinbestean jartzen dute zalantzan hegemonia, eraldaketa sozialerako tresna dira".

Saio horretan bertan, Yukatango maia hizkuntzaren biziberritzea biltzen duen Waye dokumentala aurkeztu zen



EHUKo Letren Fakultatean 150 ikaslerekin solasaldi emankorrean aritu ziren. GARABIDE

Arabak. Dokumentalaren egileak Irati Briñas, Egoitz D. Ibargoitia eta Andoni Marquinez gazte arabarrak dira.

Aktibazio sozialerako azken ekintza *Hizkuntza Gutxiak: iraun ala bizi hitzaldi* sorta da, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean hiru hitzordu biltzen dituen, hiruna hizlariarekin. Horietako lehena irailaren 24ean izan zen *Egindakoaren kontzientzia* izan izenburupean. Bigarrenak, pasa den asteartean egindakoak,

Oraina sentitu izan zuen lelo. Eta hirugarrenean, etorkizunera begira jarriko dira azaroaren 26an, *Egin beharrekoak definitu* izenburupean.

Hizkuntza gutxituek "topaleku eskas" dituztela, baina aurtengo urria "gure hizkuntzen biziberritze esperientzien trukean aritzeko ezin oparoagoa" suertatzen ari dela diote Garabideko lagunek, "nork bere etxean egindako bidea munduko auzolanera zabaltzeko". ■

Unioaren 30etik
Nafar hegoaldeko uza
euskarari puzka
azaroaren 20ra

**AGER
ALDIA**

dek **ERRIGORA**

**60€
BERDEA**
ekologikoa

betikoa
BELTZA
50€

berezia
ZURIA
70€

SUSTATU EUSKALGINTZA NAFARROA HEGOALDEAN
SASKIEN BALIOAREN %25 BIDERATU DA ZONALDEKO IKASTOLEI,
SORTZENI ETA AEK-RI LAGUNTZERA ETA, GAINERA, 'AGER VASCO-
NUM'EAN EUSKARA PLAZARA ATERATZERA DATORREN EKIMEN
BERRIA ABIAN JARTZERA.

Europarako pasabidea

San Adriango tunela, Gaztelako bide nagusia, Aizkorri-Aratz parketik igaro zen XIX. mendera arte. Tunelaren alde bietan herrixka bat zegoen; zalditegiak, ostatua, hilerria baseliza eta ur biltegia zituen.

TESTUA: MIREIA BIKUÑA MADRID

ARGAZKIAK: 'GIPUZKOA MENDIZ MENDI'

Duela 4.000 urte, bizitoki izan zen. Erdi Aroan, gotorleku. Duela 500 urte, errepideetako atsedeen-gune. San Adriango tunela da. Aizkorri-Aratz natura parkean dagoen pasabide zaharra. "Gipuzkoan pasabide mitikorik bada, San Adriangoa da, zalantza barik. Erdi Aroan handik pasatzen zen Gaztela Europarekin lotzen zuen bide nagusia", dio Gipuzkoa Mendiz Mendi webguneak. Era berean, Araba eta Gipuzkoa lotzen zituen bide nagusia handik pasatzen zen, eta, antza, ordainsari garestia zuen. Erromesek, bidelapurrek, merkatariek eta mendizaleek urteetan erabili dute pasabide hori.

Tunela 70 bat metro luze da. Uraren higadurak haitzulo karstikoa sortu zuen han. Ostean, gizakiak haitzuloa zabaldu zuen, eta bere probetxurako egokitu.

Zaharrenak, Brontze Arokoak

Gune estrategikoa zela jakinekoa zen, baina han zer egon zitekeen jakin barik. Hori horrela, Aranzadi Zientzia Elkarteak ikerketa hasi zuen 2007an. Horren arabera, Brontze Arokoak dira San Adrianen topatu diren objekturik zaharrenak: duela 3.500 urte inguruak izan daitezkeen zeramika zatiak. Tunelaren atzealdean dagoen

baselizaren inguruetan topatu zituzten horiek, 2009an. Ordura arte, Brontze Aroko okupazio mailarik handiena. Era berean, egindako zundaketak hiru geruza utzi zituen agerian: Burdin Arokoa, erromatarren garaikoa eta Erdi Arokoa, X. mendean hasita.

Ekialdetik mendebaldera

San Adriango tunelak ekialdetik mendebalderako norabidea dauka. Ekialdean Zegamara doan bidea dago. Hain justu ere, alde horretan, gaztelua eraiki zuten XII. mendearen inguruan. XVI. mendera arte, gutxienez, gotorleku izan zen. Aizkorriko galtzada handik pasatzen zen, eta Nafarroa saihestu gura zutenek bide hura

ERDI AROAN, GAZTELA EUROPA REKIN LOTZEN ZUEN BIDEA TUNELETIK PASATZEN ZEN

erabili behar zuten Gaztelatik Frantziara joateko. Komunikabide hori kontrolatzeko eta defendatzeko eraiki zuten gaztelua. Bereziki, erromesei eta bidaiariei eman zien babes. Gazteluak bi dorre zituen: bata, tunelaren barruan; eta bestea, nagusia zena, ondoko leize batean.

Gaztelu hartatik aztarna gutxi topatu zituen Aranzadik, baina garbi ikusi zuten han herrixka bat egon zela. Tunelaren alde bietan. Zalditegiak, ostatua, hilerria, baseliza eta ur biltegia egon ziren.

Tunelean topatutako aztarna gehienak ostatuarenak dira. Ez zuen fama onik: garestia eta txarra omen zen. Baina, Araia eta Zegama arteko ostatu bakarra zenez, ezinbestean erabiltzen zuten.

XIX. mendearen erdialdean, ostatuari eraikin berria erantsi zioten: mikeleteen kuartela. Handik Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko muga zaintzen zuten. Sute batek biak suntsitu zituen, 1911n. Bestalde, egun dagoen baseliza 1893an egin zuten.

Hirutasun Santuaren egunean

Tunelaren izenik zaharrena Leizarrate da. 1615eko dokumentuen arabera. XX. mendean, San Adriango tunela esaten zitzaion. Izen hori badirudi Sandrati euskal izenari emandako interpretazio okerretik datorrela. Sandrati izenak latinezko *Sancta Trinitate* (Hirutasun Santua) esaeran du jatorria. Dokumentuek diote inguru hartan Hirutasun Santua gurtzen zela. Eta, egun, San Adriango baselizaren erromeria Hirutasun Santuaren egunean edo hurrengo igandean ospatzen da. ■■■



San Adriango tunela, Zegama aldetik. IREKIA-MIKEL ARRAZOLA



Ekialdeko sarrera.



Erromatar gaitzada, Araban.



Baseliza.



San Adriango tunela

Kuadrilla: Lautada.

Udalerrria: Donemiliaga eta Asparrena.

Bitxikeria: San Adriango tunelaren inguruko lurrak Altzaniako Partzuergoarenak dira; Erdi Arotik Gipuzkoako lau herrik eta Arabako bik osatzen dute erakundea.

Araban da, baina...

IKA EUSKALTEGIA



... nola du izena hilerri honek?

Aurten hogeita hamaikagarren urteurrena ospatuko dugu IKAn; hori dela eta, Alearen irakurle guztiokin partekatu eta guztioi aukera eman nahi dizuegu urtero euskaltegian antolatzen dugun 'Araban da, bai, baina...' lehiaketan parte hartzeko. Lehiaketa Araban dagoen dorre, haitz, ur-jauzi, eskultura... baten argazkiari buruzko galderari erantzutean datza.

Datozen asteotan argazki zein galdera bana izango duzue astero ikusgai Alea aldizkarian, asmatzeko zer herritan dagoen argazkiko jauretxea, nola duen izena irudiko mendiak edota zer jai egiten duten erretratuko baselizan. Animatu eta parte hartu, ea erantzun zuzena ematea lortzen duzuen!

Hiru astean behin opari bat zozketatuko dugu asmatzen duzuenen artean, eta, horretaz gain, irabazleok Alea taldea osatuko duzue abenduaren 19an egingo dugun Gasteizko euskaltegien arteko Araban da, bai, baina... finalean lehiatzeko. Erakuts ezazue zer ongi ezagutzen duzuen Araba! ■■■



Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, eman erantzuna gure webgunean:

alea.eus/bereziak/ika31

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak



Museo del Organo jaketxean

Bazkari begetarianoa

Gasteizko Museo del Organo jabetxe begetarianoan, astelehenetik ostiralera, bi pertsonarentzako eguneko menua zozkatuko du ALEAk. Parte hartu azaroaren 6a baino lehen.



Florida zinemarako Sarrera bikoitza

Gasteizko Florida zinemetan, edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk. Parte hartu azaroaren 6a baino lehen; azaroaren 8ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.

POSTONTZIA

BIDALI ZURE MEZUA: www.alea.eus/zorionagurrak



Haizea Amundarain Gasteiz 6 urte.

Zorionak gure etxeko neska txiki handiari, maite zaitugu.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Azaroaren 1etik 7ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

AMURRIO Lukiek

Mocker's taldearekin batera.
Ostirala 1, 21:00etan, Burubio aretoan.

ARAIA Zukan

Jon Ansorenak (txistua), Gorka Catedianok (perkusioa) eta Maria Zubimendik (akordeoia) osatutako taldea. 'Soinuzko begiradak' lana aurkeztuko dute.
Igandea 3, 13:30ean, Andra Mari aretoan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Dena izango naiz'

Europako hainbat herrialdetako 3.500 umeri etorkizuna irudikatzen eskatu diete, eta material horrekin sortu dute ikuskizuna, umeen istorio eta marrazkiekin osatutakoa, 7-10 urte bitarteko haurrek.
Larunbata 2, 12:30etik aurrera, Beñat Etxepare antzokian.

HAURRAK

AMURRIO Ipuin kontalaria

Ipuin kontalaria. 2-3 urte bitartean.
Asteazkena 6, 17:00etan, udal liburutegian.

GASTEIZ Ipuin kontalaria

'Kolorez jantzia', Antton Aranburu eta Lorena Martinekin. 3-6 urte bitarteko haurrentzat.
Asteazkena 6, 18:00etan, Judimendi gizarte etxean.



ALEA

GASTEIZ Ipuinak hilerrian

Zakatumba heriotzaren kulturaren jaialdiaren barruan, haurrentzako ipuinak prestatu dituzte Santa Isabel hilerrian. Ane Gebara ipuin kontolariaren eskutik, beldurrezko ipuinekin gozatzeko aukera izango dute 6 urtetik aurrerako haurrek.
Larunbata 2, 12:00etan, Santa Isabel hilerrian.

GASTEIZ Eskulan lantegia

Ilea haziko zaion patata bat egingo dute saio honetan. 4-8 urte.
Asteazkena 6, 18:30ean, Landatxoko ludotekan.

IKUS ENTZUN

GASTEIZ 'The Florida Project'

Filmazpit zikloaren barruan; jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpiztituluekin. Paul Urkijo zuzendariak aukeratutako pelikula.
Asteartea 5, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Gasteiztarrek Arraun The World'

Argazki-hizki lehiaketan saritutako bildumen erakusketa. Maroko, Argentina, Vietman eta Bielorrusiako argazkiak ikus daitezke.
Azaroaren 3ra arte, Oihaneder Euskararen Etxean.





Azaroa

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

2019

05 as. | 19:00 Ikus-entzunezkoa

**The Florida Project**

Aukeraketa: Paul Urkijo

Filmazpit: (lema) jatorriko bertutea euskarazko azpitikuekin

Filmazpit: kua elkartarekin

14 og. | 19:00 Aurkezpena

**Gure bizipoza, guztiona**

Anabel Arraiza eta Joseba Beloki

Bizipoza elkartea (elkarrekin elkarlanean)

24 ig. | 19:00 Ikuskizuna

**Margolaria**

Mikel Urdangarin eta Oier Aranzabal

Saski Naski: (erakunde) elkarlanean

Azaroak 07 > Urtarrilak 07

**Batera, kultur proiektuak elkarrekin**

- Crowdfunding-ean laguntza eta 1000 €ko ekarpena
- 16-35 urte bitarteko gazte gasteiztarrentzat
- Proposamenak bidaltzeko: oihaneder@oihaneder.eus

07 og. | 19:00 Hitzaldia

**Dura(na), Matura(na), (H)etura(na): izenetik izana**

Mikel Zalbide

Euskararen Foru Zerbitzua (elkarlanean)

20 az. | 19:00 Ikastaroa

**Erromintxela**

Oscar Vizarraga

Hitz Adina Mintza, Hizkuntza-gutxiak azagartzeko zirkua

UEU (elkarlanean)

26 as. | 19:00 Mahai-ingurua



Aurketo eta gidari: Iratxe Lachona

Egin beharrekoak definitu

Gartzen Garaio, Isabel Arias eta Aitor Aldasoro

Garabide (elkarlanean)

13 az. | 19:00 Ikus-entzunezkoa

**Txillardegiren klika**

Kote Camacho eta Miren Rubio

Begi Belarri: (ikus-entzunezkoa) zirkua

GEU Elkartea (elkarlanean)

21 og. | 19:30 Kontzertua

**Don Inorrez**

"Mugiro bila" diskoaren aurkezpena

Eskilarapeko Solinak (formatu bakarreko kontzertua) zirkua


30 ir. | 20:30 Kontzertua

**Aire Ahizpak**

"Bidexka" diskoaren aurkezpena

Aitzina Folk Jaialdia

Deialdia



Info +:

itsulapikoa.eus/deialdiak/batera

oihaneder.eus

Fray Joaquin Martinez, 2 - Vitoria-Gasteiz

LAGUNTZAILEAK

Diario**ALEA****berria****radio vitoria**

ANTOLATZAILEA

**OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA**
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIAAyuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



Ekitaldi politikoa **GASTEIZ**

azaroak 5
Artium
Plaza aretoa
19:00

ehbildu

**Iñaki
berriro**

BAIETZ!